

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****OSASUN**

1. Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak	2
2. Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak, edo ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak	4
3. GIB/HIESA, C hepatitis (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak EAEn garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntzak.....	7
4. Euskal autonomia erkidegoko gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzak.....	9
5. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko dirulaguntzak	11
6. Elkarteei eta kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko	13
7. 2024ko osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak	15
8. Osasun-arloko fundazio eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako laguntzak, 2024an osasun-arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatzeke.....	17
9. Osasun-zientzietako espezialitateetan egoiliarren prestakuntza-aldian dauden profesionalen 2024ko ekitaldiko kanpoko errotazioetarako laguntzak	20
10. Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak, 2023ko eta 2024ko urteetakoak	22



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, osasunaren alorreko ikerketa- eta garapen proiektuetarako laguntzen 2024eko deialdia arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko sailbuarena ([EHAA, 93.zk, 2024/05/14koa](#))

EMATE-EBAZPENA:

1. lerroa: "Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea" ([EHAA, 15.zk, 2025/01/23koa](#))
2. lerroa: "Ikerketa sanitarioko jarduerak areagotzea" ([EHAA, 10.zk, 2025/01/16koa](#))
3. lerroa: "Osasunari buruzko ikerketa estrategikoa bultzatzea" ([EHAA, 17.zk, 2025/01/27koa](#))
4. lerroa: "Interes bereziko ekintza osagarriak" ([EHAA, 15.zk, 2025/01/23koa](#))

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen xedea da osasunari buruzko ikerketa eta garapenerako laguntzen 2024ko deialdiaren oinarriak ezartzea, publikotasunaren, gardentasunaren, konkurrentziaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioei jarraikiz, bai eta laguntzok ematen dituen Administrazioak finkatutako helburuak betetzeko efikaziari eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientziari erreparatuta ere.

Agindu honetan adierazitako jarduketan azken helburua da pertsonen osasuna eta sistema sanitarioaren jarduera hobetzea, bai eta garapen sozioekonomikoari laguntzea ere, asistentzia sanitarioa eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatzearen bidez

2024ko deialdiak 2023ko deialdiko lau laguntza-lerrori eusten die, honako helburu hauekin: osasun-sistemaren ikerkuntza indartzea, I+Gko belaunaldi-erreleboa, RIS3ren hazkundea Osasun Pertsonalizatuaren arloan, I+Gko jardueretarako dedikazioa handitzea eta Euskadiko osasun-sisteman ikerketa-kultura indartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Eskaeren guztizko kopurua (1., 2., 3. eta 4. lerroak): 177. Esleitutako proiektuen guztizko kopurua: 67.

« Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea » izeneko 1. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 110.

- Esleitutako proiektuen kopurua: 20, eta laguntzen lerro honen aurrekontuaren %25 bideratu da Talde gazteak sustatzea *susperraldian dauden taldeen sustapenera*.

«Ikerketa sanitarioko jarduerak areagotzea» izeneko 2. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 14.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 13.

«Osasunari buruzko ikerketa estrategikoa bultzatzea» izeneko 3. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 50.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 31.

«Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko 4. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 3.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 3.

Esleitutako 67 proiektuetatik 40tan, emakumeak ziren ikertzaile nagusiak (diruz lagundutako proiektuen %59,70).

Erabilgarri zeuden funtsen %100 exekutatu da.

Hautatutako proiektuek, kalitate zientifiko altua edukitzeaz gain, inpaktu sozial handiko gai biomedikoak edo oro har osasun-arlokoak jorratzen dituzte, eta osasun-sistemaren jarduna nahiz herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko xedea dute. Proiektuek honako eremu hauek hartzen dituzte: diagnostikoa eta/edo pronostikoa; gaixotasunen bilakaerari eta/edo kontrolari lotutako faktoreak; hainbat gaixotasunen tratamendu terapeutikoa (neurodegeneratiboak, besteak beste); medikuntza pertsonalizaturako biomarkatzaileak eta teknologiak; gaixotasunen arrisku-faktoreen identifikazioa; iragarpen-ereduak; telemonitorizazioari aplikatutako adimen artifiziala; eraginkortasunaren eta kostuaren ebaluazioa, eraginkortasuna, inpaktua edo esku-hartzeen ezarpenaren ebaluazioa; zahartzea; patologiei buruzko hainbat alderdi, hala nola minbizia, gaixotasun arraroak, gaixotasun neurodegeneratiboak, obesitatea eta diabetesa; gailu medikoak; medikuntza birsortzailea eta terapia aurreratuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Finantzatutako osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko I+G proiektuen kopurua	20	20
Ikerketa-jardueraren areagotze-kopurua	5	13
RIS3 estrategiaren barruan zenbat proiektu eta zenbat lankidetzak eta garapen-ekintza	25	34
I+G proiektuetako ehuneko zenbatean ikertzaile nagusia emakumezkoa	% 45	% 59,70

2024ko dirulaguntzen plan estrategikoan adierazitako adierazleak, oro har, bete dira.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak, edo ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 8koa, Osasuneko sailburuarena, 2024ko ekitaldian arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko proiektuak egiteko laguntza ekonomikoetarako deialdia egiten duena. (2024ko urriaren 15ko EHAA, 201. zk.)

AGINDUA, 2024ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, 2024ko ekitaldian Erkidegoan adikzioen tokiko planak garatzeko laguntza ekonomikoetarako deialdia egiten duena (EHAA, 210. zk., 2024ko urriaren 28koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: (2024ko urriaren 15ko EHAA, 201. zk./// EHAA, 210. zk., 2024ko urriaren 28koa).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404731e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404934e.shtml>

4.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Honako hauei emango zaizkien dirulaguntzak:

- EAEko toki-erakundeak, 2024. urtean arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko programak eta esku-hartzeak garatzeko, bai eta EAEko Adikzioen Planari lotutako adikzioen edo droga-mendetasunen tokiko planetan dauden jokabide osasungarriak sustatzeko programak eta esku-hartzeak garatzeko ere. Plan horiek onetsita edo egiten ari dira, eta udalerriek banaka edo mankomunatuta egin eta garatzen dituzte, jarduketa egituratu eta koordinatuen multzo ordenatu bat osatuz.
- Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak, 2024an osasun publikoaren eta adikzioen arloan, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiten dituztenak, bai eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko proiektuak ere.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Tokiko Planak garatzea (II. kapitulua): 1.174.135 €

Tokiko planei atxikitako adikzioen prebentzio komunitarioko eta jarduera-eremu horretan jokabide osasungarriak sustatzeko programak garatzea (III. kapitulua): 561.765 euro.

- Funtzio nagusia, agindu honen 16.2 artikuluan ezarritakoak alde batera utzi gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planari lotutako Foru edo Toki Planean ezarritako helburuak betetzea da. Helburu horiek Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 67.1.a) eta 68.1.a) artikuluetan aipatzen dira, hurrenez hurren.

Gizarte-ekimeneko erakundeek arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egitea, bai eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko proiektuak ere (IV. kapitulua): 1.118.500 euro.

- Sektore arteko eta erakunde arteko ekintzak mantentzea eta sustatzea, pertsonen ongizatea, arrisku-faktorarik eza eta osasun-arloko ekitatea sustatzeko.
- Euskadiko 2023-2027 Adikzioen VIII. Planaren helburuetan eta jarduera-ildoetan hobekien txertatutako programak eta proiektuak mantentzea.
- Behar berriak erakustea eta, horiekin bat etorritik, horiei erantzungo dieten proiektu berriak babestea.
- Proiektuak eta programak hobetzen laguntzea, esku hartzeko protokoloak diseinatzeko eta sistematizatzeko prozedurei jarraituz.

Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko esleitutako dirua hau da:

- Ausazko jokoarekiko eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuekiko adikzioa prebenitzea eta tratatzea helburu duten proiektuak diruz laguntzeko esleipen ekonomikoa: 236.000 euro, hau da, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko aurrekontuan jasotako guztizko kopuruaren % 21,10.
- Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko gainerako esleipen ekonomikoa: 882.500 €, hau da, % 78,90.

Bereziki aipatzen da zuzendaritzarekin zerikusirik ez duten zailtasun batzuen ondorioz deialdia oso berandu argitaratu dela, eta laguntzak izapidetzean atzerapenak egon direla. Ondorioz, deialdiak ez dira behin betiko ebatzi, eta ezin dira lortu deialdi horien onuradun guztiei buruzko datuak.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Toki-erakundeei emandako emakiden kopurua:	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
II. Kapitulua	34	
III. Kapitulua	43	
Proiektuen kopurua (III kapitulua)	170	
Gizarte-ekimeneko erakundeen kopurua (IV: kapitulua):	35	
Proiektuen kopurua (IV. kapitulua)	75	



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

GIB/HIESA, C hepatitis (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak EAEn garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntzak.

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko martxoaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei Euskal Autonomia Erkidegoan GIB/ hiesa, C hepatitis (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programak gauzatzeko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko martxoaren 6koa, Osasuneko sailburuarena (euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401613e.shtml)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko irailaren 25ekoa, Osasuneko sailburuordearena (euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404565e.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Herri Administrazioek martxan jartzen dituztenak ezinbestekoak dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko ahalegin bateratu horretan laguntzeko eta birus eramaileen egoera hobetzeko.

Hona hemen laguntza horien jomugan daudenak:

- Gizonekin sexua daukaten gizonei zuzendutako proiektuak, kontuan hartuta zenbaterainoko garrantzi epidemiologikoa duen giza-talde horrek gaur egun.
- GIBari dagokionez egoera zaurgarrian dauden beste giza-talde batzuei zuzendutako proiektuak; kasurako, etorkinak, drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak eta prostituzioan lan egiten dutenak.
- GIBaren, CHaren eta STIen infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak
- GIBa duten pertsonen babes psikologikoa eta soziala emateko proiektuak



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hortaz, 300.000,00 €-ko diru-laguntza eman zaie lan garrantzitsua egiten duten erakundeen proiektu eta jarduerari, Administrazioak nekez iritsi ditzakeen kolektiboari babesa eta prebentzioa emanez.

Deialdira aurkeztutako proiektu guztiak, 35 proiektu, dirulaguntzen onuradunak izan ziren. Helburuak nori zuzenduta zeuden arabera, proiektuak honela banatu ziren:

Sexua gizonekin duten gizonak (SGG)	% 20
Prostituzioan aritzen diren pertsonak (PAP)	% 20
Drogak bide parenteraletik hartzen dituzten pertsonak (DBPP)	% 17
Gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsonak, eta/edo migrazio irregularreko egoeran daudenak	% 11
GIB infekzioa duten pertsonak, eta GIB infekzio-arriskua duten pertsonak	% 6

Beste helburu batzuen arabera, proiektuen banaketa honako hau izan zen:

Sustapena eta diagnostiko goiztiarra	% 8
Laguntza psikologikoa eta/edo emozionala, psikoterapia edo psikohezkuntza-tailerrak	% 8
GIBaren prebalentzia eta estigma murriztea, GIBaren infekzioa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea	% 6

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru laguntza jasotzen duten elkarte kopurua	16	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal autonomia erkidegoko gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, EAEko gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako 2024ko laguntzak arautu eta haietarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko Sailburuarena (<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402561e.shtml>)

AGINDUA, 2024ko abuztuaren 23koa, Osasuneko Sailburuarena (<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404138e.shtml>), 2024ko apirilaren 30eko Agindua aldatzen duena

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko urriaren 31ekoa, Osasuneko Sailburuordearena (<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405299e.shtml>)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza lerro honen helburu nagusia gaixotasunen bat duten pertsona-kolektiboen eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzea da. Zehazki:

- Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboei eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzea, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta beraien autonomia areagotzeko.
- Kaltetutako pertsonen behar soziosanitarioetan laguntzea eta horiek bideratzea, ikuspegi osasungarri batetik, osasuna sustatze ikuspegitik eta helburu komunitarioekin.
- Gaixotasunari buruzko ezagutza eta informazioa areagotzea kaltetuetako pertsonetan eta haien familietan, eta gaixotasunaren arrisku-faktoreei eta osasun-jokabide egokienei buruzkoa.
- Kaltetutako pertsonen osasun-desberdintasunak murriztea eta genero-ikuspegia txertatzea.

Gaixoen elkarteak patologia bera duten pertsona fisikoen taldeak dira eta honako helburu hauek dituzte: dena delako gaixotasuna eta berau sendatzeko tratamenduak hobeto ezagutzeko lan egitea, elkarrekiko laguntza lortzeko, eta gainerako herritarrei gaixotasunaren prebentzioari buruzko informazioa ematea, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)



2024an, programaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko helburu adierazlea 65 proiektu diruz laguntzea izan zen. Guztira 92 proiektu lortu ziren, eta, beraz, dagokion aurrekontu-programan jasotako aurreikuspenen betetze-maila gainditu zen. Deialdiaren % 100 esleitu zen, 300.000 euroko guztizko zenbatekoarekin.

Hainbat patologia dituzten paziente eta senideei laguntzeko jarduerak diruz lagundu dira, hala nola:

- minbizia
- diabetesa
- buru- eta portaera-nahasmenduak
- nerbio-sistemaren eta sistema osteomuskularraren nahasmendua
- elikadura-nahasmenduak, etab.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- gaixoen eta familiartekoen autolaguntza eta babes-taldeak
- laguntza psikologiko eta soziala, familia-unitateko pertsona guzien bizi-kalitatea handitzeko
- Mantentze funtzionaleko jarduerak: taldekoak eta banakakoak
- pazienteentzako eta familiartekoen prestakuntza-hitzaldiak, aholkularitza
- gaixotasunei buruzko informazio eta sentsibilizazioa
- informazio-gida espezifikoaren prestaketa

Elkarteek aurkeztutako memorietan zehazten dira dirulaguntzen emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	65	92



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2024ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko partaidetza-proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena (euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404962e.shtml)

AGINDUA, 2024ko azaroaren 11koa, Osasuneko sailburuarena (euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405298e.shtml), 2024ko urriaren 22ko Agindua aldatzen duena

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 20koa, Osasuneko sailburuordearena (euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/01/2500371e.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen lerro honen helburu nagusia hau da, laguntza ekonomikoen deialdia egitea tokiko ekintza komunitarioa sendotzeko, eta osasuna sustatzeko proiektuak garatzeko, non eta helburu komunitarioak izanez, asmoei, arazoei edo interesekoak diren gaiei erantzuna ematen dutela komunitatearen beharrei. Toki-erakundeei, tokiko erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzendutako dirulaguntzak dira.

Laguntza hauen helburua 2024an hurrengoetara zuzendutako partaidetza-proiektuetak finantziatzea izan zen:

- a) Espazio berean bizi direnen bizi-baldintzak hobetzea.
- b) Osasuna eta ongizatea hobetzeko prozesuetan ekintza indibidualeko eta kolektiboko gaitasunak sustatzea.
- c) Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak barne hartuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)



2024an, programaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko helburu adierazlea 40 proiektu diruz laguntzea izan zen. Lortutako kopuruek, diruz lagundutako 41 proiektuk, aurrekontuei programari zegokion aurreikuspenen betetze-maila lortu zuten, eta deialdiaren % 100a esleitu zen, 250.000 euro.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Partaidetza-proiektuak egitea, bizikidetza-eremuko biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko.
- Banakako nahiz taldeko ekintza-gaitasunak indartzea, osasuna eta ongizatea hobetzera bideratutako prozesuetan.

Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak barne egonda Laburbilduz, bidalitako memorien ebaluazioetan oinarrituz, esan daiteke dirulaguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak positiboak izan direla.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	40	41



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarteei eta kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzen deialdia egiten baita, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratuta dauden partaidetza-proiektuak gauza ditzaten 2024-2025eko ikasturtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko uztailaren 30ekoa, Osasuneko Sailburuarena (<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404214e.shtml>)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 17koa, Osasuneko Sailburuordearena (<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/01/2500306e.shtml>)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da osasuna sustatzea eskola-mailako jarduketetan eta sektore sanitariokoak ez diren gainerako eremuetan.

Dirulaguntza hauen xedea jarduera hauek finkatzea da:

- a) Parte hartzeko proiektuak gauzatzea eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko, hiri-espazioek mugikortasun aktibo eta segururako eskaintzen dituzten aukerak baliatuz.

Eskola-bidetzat joko dira ibilbide zehatzak, aurrez ezarriak eta markatuak, eskola-umeek erabil ditzaketenak ikastetxeetako joan-etorriak modu aktiboan (oinez, gurpil-oholez, bizikletaz eta antzekoak erabiliz), seguruan eta autonomoan egiteko, eta, hala, espazio publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzeko.

- b) Parte hartzeko proiektuak gauzatzea, ikastetxeetako jolastokiak ikasteko, jolasteko eta mugitzeko espazio inklusibo bihurtzeko eta/edo dinamizatzeko, baita kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeke ere, eskola-ordutegian zein hortik kanpo, berdintasunean eta kultura, etnia, adin, sexu, desgaitasun eta bestelako aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta eta ikasleen eta haien familien behar eta interesetara egokituta.

Proiektu horiek beharko dute:

- 1.- Ikastetxeko ikasle guztien jolas-aukerak, jarduera fisikoa eta elkarbizitza handitu.
- 2.- Neskek jarduera fisikoa egitea berariaz sustatu, jarduera-ezaren ratioa handiagoa baita kolektibo horretan.



3.- Mugimendua eta jolas aktiboa sustatu ikasle helduenen edo bigarren hezkuntzako ikasleen artean, adin-tarte horretako sedentarismorako joera saiheste aldera.

c) Familian ohiko jarduera fisikoa egitea bultzatzera bideratutako jarduerak sustatzea, hala nola mendi- edo bizikleta-irteerak, ibilaldiak irristailuetan edo familian egiteko jolas-jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an, programaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko helburu adierazlea 25 proiektu diruz laguntzea izan zen. Laguntza hauek urte anitzekoak dira, ikasturteko iraupen bera dute eta 2025eko uztailan bukatuko dira, diruz lagundutako proiektuaren justifikazioa aurkezten direnean.

2024an, 107 eskari izapidetu ziren, eta 62 proiektuei laguntza esleitzea ebatzi zen. Horietariko % 35,5ak ekintza bat baino gehiago zuen barne. 215.800 euro aldeztatik ordaindu dira, esleitutako zenbatekoaren % 74,209a.

Eskolako jolastokiei buruzko ekintzak 54 proiektuetan zeuden barne, hala nola:

- Patioak eraldatzea eta/edo dinamizatzea (obrak gauzatzea, instalazioak, jarduera dinamizatzeak...).
- Beharren diagnostikoa.
- Patioak eraldatzeko egiturazko materialak erostea.

Familiako jardueren ekintzak 7 proiektutan aurkeztu ziren, eta eskola-bideenak, berriz, 2 proiektutan.

2023-2024 ikasturteko deialdia 2024an bukatu zen, justifikazioak aurkeztu eta esleitutako zenbatekoaren % 30 ordainketarekin (75.000 euro), eta bidalitako memorien ebaluazioetan oinarrituz, esan daiteke dirulaguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak positiboak izan direla.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	25	62



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2024ko osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko apirilaren 12koa, Osasuneko sailburuarena, arlo sanitarioko profesionalak 2024an prestatzeko beken eta laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko apirilaren 12koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 170. zk., 2024/09/02koa)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 22koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 243. zk., 2024/12/16)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko banakako laguntzak eta bekak ematea. Prestakuntza-jarduerak 2024an hasi behar dira, modalitate hauetakoren batean:

- a) Estatuko unibertsitate-ikastegiekin edo Osasun Ministerioaren mendeko osasun-institutuekin, edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolekin emandako graduondoko ikastaroetan parte hartze; edo aipatutako erakundeekin ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen graduondoko titulu propioen bat sortzen badute.
- b) Atzerriko unibertsitateekin emandako graduondoko ikastaroak egitea, Sailarentzat estrategikoak diren arloetan konpetentzia aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude.
- c) Atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egitea, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak egiteko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 180.000 eurokoa izan zen (108.000 euro 2024ko aurrekontuaren kontura eta 72.000 euro 2025erako konpromiso-kredituei zegozkien). Deialdia ebatzi ondoren, 92.457,27 euro esleitu ziren, aurrekontuaren %51,37.

Guztira, 33 beka eta laguntza eman dira aurkeztutako 94 eskaeren artean. Estatuko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko 29 laguntza eman ziren eta atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko 4 laguntza.

Lurraldearen eta urtearen arabera banaketa honako hau da:

<i>Lurraldea</i>	<i>Onuradunen kop.</i>	<i>2024ko ekitaldia</i>	<i>2025eko ekialdea</i>	<i>Guztira</i>
Araba	4	11.151,95€	7.434,64€	18.586,59€
Bizkaia	21	32.643,55€	21.762,35€	54.405,90€
Gipuzkoa	8	11.678,86€	7.785,92€	19.464,78€
Osoa	33	55.474,36€	36.982,91€	92.457,27€

47 eskaera ukatu dira; horietatik 4 Arabakoak dira, 31 Bizkaikoak, 11 Gipuzkoakoak eta beste erkidego bateko 1. Atzera egin dute 14 eskabidek, 1 Gipuzkoakoa eta 13 Bizkaikoak; 6, bikoiztasunagatik, eta 8, berriz, prozeduratik. Ukatutako eskaeren artean, adierazi behar da zenbait eskabidek ez betetzeko hainbat arrazoi dituztela. Bestalde, gora jotzeko 8 errekurso aurkeztu dira (7 ezetsiak eta 1 baietsia).

Deialdia urte anitzekoa denez, diruz lagundutako prestakuntza-jarduera 2024ko ekitaldian hasi behar da, baina 2025ean amai daiteke, eta jasotako azken justifikazioak oraindik ez dira nahikoak aurreikusitako mailara iritsi den ala ez egiaztatzeko.

Eskatutako laguntzen kopurua aurreikusitakoa ez bada ere, osasun-arloko langileen prestakuntzak beti laguntzen du:

- Eguneratzea eta hobetzea profesionalek dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ezagutzaren aurrerapenaren aurrean, zientziaren eta teknologiaren bilakaera dela eta.
- Gizartearen eta osasun-sistemaren eskaerei eta premiei erantzutea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Atzerriko zentroetan egonaldiak egiteko beken eta laguntzen kopurua.	5	4
Estatuko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua.	45	29
Atzerriko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua.	5	0
Jasotako prestakuntza beraiei lanposturako eraginkorra izan dela uste dutenen ehunekoa. *Prestakuntza-jarduera 2024an amaitzen denean baloratuko da (ekaina-iraila)	>75%	(*)
Familia eta komunitateko medikuntzaren garapena sustatzeko diruz lagundutako prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>20%	21,21%
Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>20%	0%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko fundazio eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako laguntzak, 2024an osasun-arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko apirilaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, osasun arloko irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteentzako laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena, osasun arloko profesionalei zuzendutako etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatzeko 2024an.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko apirilaren 17koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 107. zk., 2024/06/03)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 12koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 233. zk., 2024/11/29)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Osasun Sailak profesional sanitarioen etengabeko prestakuntzaren kalitatea sustatu nahi zuen, kolektibo horren ezagutzak eta trebetasunak eguneratzea eta zabaltzea bermatuko zuten prestakuntza-jarduera gehiago finantzatzuz eta diruz lagunduz.

Planteatutako helburua lortzeko diruz lagundu ziren prestakuntza-jarduerak hiru motatakoak izan ziren:

- Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoaren ildoetan jasotako gaiei buruzkoak.
- Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak egiaztatutako jarduerak, 1,39tik gorako osagai kualitatiboa dutenak.
- Osasun Sailak interes sanitarioa aitortzen dien ekintza zientifikoak.

Diruz lagundutako formatuak honako hauek ziren: kongresuak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak.

Diruz laguntzeko modukoak ziren erakunde eskatzaileek osasun-profesionalei zuzenduta egiten zituzten etengabeko prestakuntzako jarduerak, 2024an zehar egiten zirenak eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten zirenak.

Jardueren helburua zen profesional sanitarioen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eguneratzea eta hobetzea bilakaera zientifikoaren eta teknologikoaren aurrean, bai eta gizartearen eta osasun-sistemaren beraren eskaerak eta beharrak ere, edo ikerketa sanitarioa sustatzea.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 79.409 eurokoa izan zen (47.645 euro 2024ko aurrekontuaren kargura eta 31.764 euro 2025erako konpromiso-kredituei dagokienez). Deialdia ebatzita, 8.000,00 euro esleitu ziren, aurrekontuan jasotakoaren % 10,075.

Guztira, 3 laguntza eman dira, aurkeztutako 9 eskaeretatik.

Lurraldez lurralde eta urtez urte honela banatzen da:

<i>Lurraldea</i>	<i>Onuradunen kop.</i>	<i>2024ko ekitaldia</i>	<i>2025eko ekitaldia</i>	<i>Guztira</i>
Araba	0	0€	0€	0€
Bizkaia	3	4.800,00€	3.200,00€	8.000,00€
Gipuzkoa	0	0€	0€	€
Osoa	33	4.800,00€	3.200,00€	8.000,00€

6 eskaera ukatu dira; horietatik 3 Arabakoak dira, 2 Bizkaikoak eta 1 Gipuzkoakoa. Ukatutako eskaeren artean, adierazi behar da eskaera batek ez betetzeko bi arrazoi dituela. Hauek izan dira ukatutako 6 eskaerak ukatzeko arrazoiak:

- 2, irabazi-asmorik gabeko fundazio edo elkarte ez izateagatik, zuzenbide publikoko korporaziorik gabe (4. artikulua).
- 2, 2024an jarduerak ez egiteagatik (5.1 artikulua).
- 2, 50 puntuko gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik (10.a artikulua).
- 1, Prozeduran atzera egitea.

Entitateetako batek ez du behar bezala justifikatzen egindako lanaldia, eta, beraz, laguntza baliogabetu egin da. Esleitutako behin betiko zenbatekoa 6.000,00 € izan da (aurrekontuan jasotakoaren % 7,56).

Honako adierazle hauek ezarri ziren deialdi honetarako:

1. Emandako laguntzen kopurua. Magnitudea: 10
2. Diruz lagundutako prestakuntza-jardueretan emandako orduen guztizko kopurua. Magnitudea: >300
3. Diruz lagundutako prestakuntza jaso duten lanbideen kopurua. Magnitudea: >4
4. Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten diruz lagundutako prestakuntza-jardueren ehunekoa. Magnitudea: >%20

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako laguntzen kopurua	10	2
Diruz lagundutako prestakuntza-jardueretan emandako orduen guztizko kopurua	>300	70
Diruz lagundutako prestakuntza jaso duten lanbideen kopurua	>4	5



<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten diruz lagundutako prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>20%	0

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-zientzietako espezialitateetan egoiliarren prestakuntza-aldian dauden profesionalen 2024ko ekitaldiko kanpoko errotazioetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko apirilaren 24koa, Osasuneko Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zientzietako espezialitateetan egoiliarren prestakuntza-aldian dauden profesionalen 2024ko ekitaldiko kanpoko errotazioetarako laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko apirilaren 24koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 93. zk., 2024/05/14)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 8koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 170. zk., 2024/09/02)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko egoiliarrei kanpoko errotazioak egiteko laguntzak ematea. Errotazioak 2024an hasi behar dira.

Kanpoko errotazioek Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren baimena izan beharko dute, osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen dituen eta osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren alderdi jakin batzuk garatzen dituen otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren arabera.

Laguntzen helburua da EAEko edozein zentro akreditatutan egoiliarren mugikortasuna erraztea eta sustatzea, zentro horien prestakuntza hobetzen laguntzen duten Espainiako zentroetara edo egiaztatutako edo ospe handiko atzerriko zentroetara joan daitezen.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako aldi baterako lekualdatzeei eta egonaldi laburrei lotutako gastuen zati bat finantzatzen lagunduko dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 100.000 eurokoa izan zen (50.000 euro 2024ko aurrekontuaren kontura eta 50.000 euro 2025erako konpromiso-kredituei zegozkien). Deialdia ebatzi ondoren, 24.331,34 euro esleitu ziren, aurrekontuaren %24,33.

Guztira, 36 laguntza eman dira aurkeztutako 73 eskaeren artean. Estatuko destino-zentroetan errotazioak egiteko 15 laguntza eman ziren, eta beste herrialde batzuetan errotazioak egiteko 21 laguntza (Costa Rica, Nikaragua, Angola, Argentina, Dominikar Errepublika, Mexiko, Londres, Kuba).



Lurraldearen eta urtearen arabera banaketa honako hau da:

	<i>Onuradune n kop.</i>	<i>2024ko ekitaldia</i>	<i>2025eko ekitaldia</i>	<i>Guztira</i>
España	15	4.906,67€	4.906,67€	9.813,34€
Europa	0	0€	0€	0€
Beste batzuk	21	7.259,00€	7.259,00€	14.518,00€
Osoa	36	11.965,67€	11.965,67€	24.331,34€

32 eskaera ukatu dira eta prozeduran atzera egin dute 5.

Deialdia ebatzi ondoren, hiru pertsonak uko egin diote.

Ez da gora jotzeko errekurtsorik aurkeztu.

Ukatutako 32 eskaerak ukatzeko arrazoia honako hau izan da:

- Osasun Sailak proposatutako gogobetetze-inkesta guztiak bete ez izana egoitza-aldian (3.5 artikulua).

Hona hemen deialdi honetarako ezarri ziren adierazleak:

1. Atzerriko zentroetan kanpoko errotazioak egiteko emandako laguntzen kopurua. Magnitudea: 25.
2. Estatuko zentroetan kanpoko errotazioak egiteko emandako laguntzen kopurua. Magnitudea: 50
3. Osasunaren arloan genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten diruz lagundutako kanpoko errotazioen ehunekoa. >%20

Ez dira eman aurreikusita zeuden adina laguntza, baina kontuan hartu behar da laguntza horien lehen deialdia izan dela. Emaizak aztertu ondoren, hurrengo ekitaldirako zenbait aldaketa egingo dira deialdian, emakiden kopurua handitzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Atzerriko zentroetan kanpoko errotazioak egiteko emandako laguntzen kopurua	25	21
Estatuko zentroetan kanpoko errotazioak egiteko emandako laguntzen kopurua.	50	15
Osasunaren arloan genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten diruz lagundutako kanpoko errotazioen ehunekoa.	>20%	21,21%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak, 2023ko eta 2024ko urteetakoak

2.- Araua

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen.

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.

16/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, zeinaren bidez bigarrenenez aldatzen baita Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen dekretua.

AGINDUA, 2024ko martxoaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2023ko eta 2024ko laguntzak emateko errazteko bete daitezzen agindutako tratamendu medikoak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Arauak:

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa (2013-11-28ko EHAA, 227. zk)

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa (2017-11-17ko EHAA, 220. zk.)

16/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa (2019-02-11ko EHAA, 29. zk.)

Deialdia:

AGINDUA, 2024ko martxoaren 13koa, Osasuneko sailburuarena (2024/03/26ko EHAA, 62. zk.)

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01->

[a2inform/eu/contenidos/informacion/ayudas_adherencia_2024/eu_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-a2inform/eu/contenidos/informacion/ayudas_adherencia_2024/eu_def/index.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa honen helburua da gaixotasun- eta premia-egoera objektiboan dauden pertsonak Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako eta finantzaketa publikoa behar duten tratamendu medikoetara atxikitzea erraztea.

Hala badagokio, agindutako tratamendu mediko bat betetzearen ondorioz ordaindu dituzten zenbatekoak ordainduko dira, finantzaketa publikoa behar duten tratamendu farmakologikoei, produktu dietetikoei eta efektu eta osagarriei dagokienez.

Deialdi honetako laguntzen subjektu izango dira gaixotasun- eta premia-egoera objektiboan dauden pertsonak, baldin eta 447/2013 Dekretu finkatuaren 3.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Hona hemen baldintza horiek:

- Osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko eskubidearen titularrak, Gizarte Segurantzako pentsiodunak badira, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

- Osasunaren babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, legezko langabezia-egoeran badaude, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren modalitatean jasotzen badute eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Aurreko hiru ataletan aipatzen diren osasunaren babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularren onuradunak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Espainian egoiliar gisa erregistratuta edo baimenduta ez dauden eta Espainiako nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko eskubidea duten atzerritarrek, eskubide hori aitortzeko Euskal Autonomia Erkidegoak emandako egiaztatgia badute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025/02/04an, Euskal Autonomia Erkidegoan farmazian ordaintzetik salbuetsitako pertsona gehigarriak 122.883 izan ziren, hurrengo taulan adierazten den bezala banatuta.

Farmazian ordaintzetik salbuetsita dauden pertsona gehigarriak	122.883
Farmazia salbuespena duen pentsioduna. Titularra	83.582
Farmazia salbuespena duen pentsioduna. Onuraduna	9.164
Adin txikikoak % 33 edo gehiagoko desgaitasuna	3.876
Seme-alaba titularren konturako prestazioa jasotzen dutenak	17.825
Ardurapeko seme-alabagatiko prestazioa jasotzen duena. Onuraduna	8.436

Era berean, Euskadiko pentsioen azterketa historikoak erakusten du Euskadiko 18.000 pentsiotik beherako pentsioen kopurua jaisten joan dela pixkanaka. 192.049 pentsiotik 148.701era 2024an (43.348 pentsio gutxiago).

Laguntzen eskatzaile potentzial (pentsiodun) gutxiago izatearen emaitza horri gehitu behar zaio lehen 2021etik koordinketa farmazeutikotik salbuetsiak handitzeari buruz aipatutakoa. Azken hori kontuan hartuta, farmazia-koordinketarako laguntzak 2025ean eska ditzaketen pentsioen kopurua (hedaduraz, pentsiodunak) 55.955 da.

Horrez gain, langabezia-egoeran dauden pertsonen kopurua (laguntza eskatu dezaketen beste kolektibo bat) nabarmen murriztu da: 2012ko abenduan 169.078 ziren, eta 2024ko abenduan, berriz, 107.380.



2024. deialdiko eskabideak aurkezteko epe guztiak amaitzean, guztira 41.884 eskaera aurkeztu dira (arazketarik egin ezean).

2025eko martxoan, EAEko herritarrek aurkeztutako eskaeren ia % 100 kudeatu dira. Data horretan, 2024ko ekainaren 10a baino lehen aurkeztutako eskabideak ebatzi dira, hau da, 26.514 eskabide ebatzi dira, % 83,7k aldeko ebazpena eman dute eta % 16,3k kontrakoa.

2024an emandako aldeko ebazpenen zenbatekoei dagokienez, hauek dira zifrak: 2023ko deialditik 1.351.484,00 €-koa izan zen zenbatekoa (bigarren epea eta lehen aldiaren gainerakoa); eta 2024ko deialditik 729.883,67 €-koa (lehen epea).

2024ko ekitaldiko aurrekontua gauzatze aldera, 2.053.486,36 €-ko obligazioak onartu dira, hau da, aurrekontu eguneratuaren % 98,6 eta baimenduaren % 98,6. Aurrekontu horren barruan sartzen dira 2023ko deialdiaren bigarren epeko ordainketak eta 2024ko deialdiaren lehen epekoak, bai eta 2022ko deialdiaren ebazpen batzuk ere.

2024ko deialdiaren aldeko ebazpenei esker, batetik, gaixotasun- eta beharrian-egoeran dauden 30.000 pertsona inguruk eutsi ahal izango diote Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoari, eta, bestetik, agindutako tratamendu medikoen jarraipenik ezaren ondoriozko ondorio negatiboak saihestu ahal izango dira; izan ere, horien balorazio positiboa ez da irizpide ekonomikoen arabera bakarrik egin behar, baita beste irizpide batzuen arabera ere, hala nola gizarte-ongizatea, bizi-kalitatea eta abar. Horregatik guztiagatik, programa honek inpaktu positibo handia du .

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurreikusitako eskaera kopurua	45.000	41.884